

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 251. alea - 2020ko maiatza



**“Normaltasun berri” rako bidean,
kezka nagusi oraindik ere**



Seven Clovers
Irish pub

943 191 295

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



Calbeton
JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan


Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



BURU - ZURI
Taberna

- Oartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak


Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com



Ieraenea
ERAZKUNTZA

“maito ditut nire/gure basorrak”

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Telf: 943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

k
kutxabank



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia


Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

AURKIBIDEA

6

ERREPORTAJEA

“Bisoi europarra,
Deba ibaiaren
bueltan”
(Diego Mendoza)



9

ALBISTEAK

Liburuen mailegu
zerbitzua martxan da
Ostolaza
udal liburutegian



10

ALBISTEAK

Deba eta Mutriku
lotzen dituen zubiaren
lanak abiatzeko
izapidea onartu dute



11

ERREPORTAJEA

Koronabirusaren
eraginez bizi dugun
errealitate berezia,
herritarren ahota



16

B. GAZTEA

“Sare sozialak:
onurak eta
desabantailak”;
zer diote ikasleek?



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 632 043 322

Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Hozkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hozkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Alex Turrillas, Nagore Dorronsoro eta Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzioa

Publizitatea: Joseba Escudero, Terese Larrañaga eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria
Lege gordailua: SS-246-2009

Inprimategia: Euskalinpri
ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.



XXXIV. Antzerki Astea

*Maiatzarekin batera beti
Antzerki Astea betean
Aurtengoan sartuko ginake
XXXIV.ean
Zoritxarreko berri txar batek
Utzi gaitu bazterrean
Covid 19-a daukagu
Aurten taularen gainean
Gogorra izaten da morroia
Maizter bihurtzen denean*

*Konfinatuta mundua eta
Konfinatuta kultura
Berpiztu dadin denon artean
Hartu dezagun ardura
Animo euskalzale guztioi
Kendu barruko tristura
Etorriko da bere onera
Lepoan daukagun ura
Euskal kulturak ezarriko du
Berrero ere aingura*

Goaz Antzerki Taldea



Zuekin jolasean aritzeko irrikan gaude

Kaixo, familia!

Konfinamenduan jarraitu arren, lanean ari gara Kolore Anitz Aisialdi Taldeko kideok. Berrogeialdiaren hasieran, gure sare sozialetan hainbat ekin-tza proposatu genituen, zuek etxean

egin ahal izateko. Azken aste hauetan ez dugu ezer berririk zabaldu, proiektu berrietan lanean ari gara eta.

Zuekin dantzan, jolasean eta kantuan aritzeko irrikan gaude. Laster izango duzue gure berri. Beraz, adi

gure sare sozialetako deialdiei!

Bien bitartean, animo denoi itxialdian eta besarkada handi bat Kolore Anitz familiaren partez.

Zuhatza Kolore Anitz Aisialdi Taldea

debarrak
MUNDUAN

atalean elkarrizketatzeko lagunik baduzu?
Etxekoren bat bestela?

HALA BADA...
kontaiguzu!



632 043 322



berriketan@zuhatza.com

Kulturaz berrogeialdian

Izan nahiko nuke bertso eskola opa-roago bat, ikastetxeko hurrek udaberrian Alamedara joateko beste gogo izango luketena bertaratzeko. Desio dut astero elkartuko litzatekeen irakurle talde bat euskal literaturara eta itzulpenetara bilduko lituzkeenak begiak. Amesten dut herriko dantza taldeetan neska beste mutil arituko direla eta Arte Eskola biziberrituko dela. Nahiei tiraka jarraituko banu, Goaz antzerki taldeak harmailak hiru hilean behin nola betetzen dituen ikusi nahiko nuke edota euskal zine ekoizle independenteen lanak herrian zehar proiektatuta.

Izango da handinahia naizela pentsatuko duenik, edo okerragoa dena, dugunari balioa ematen ez diodala uste duenik. Ez da hala. Deba oso herri aberatsa da kantu ahotsetan, instrumentuak jotzeko hatz abiletan, ipuin kontalarrietan eta hanka arinetan. Herriko jai egunetan bertan izatea baino ez da behar

aberastasun horren guztiaren lekuko izateko. Baina duguna zaindu egin behar da.

Etxean sartuta eman ditugun egun luzeetan, ia besterik gabe geratu garenean, kultura izan da salbatu gaituena. Kulturgileei esker pasa zaizkigu orduak bestela zatekeena baino azkarrago. Inoiz baino baliabide urriagoak izan dituztenean, inoiz baino gehiago eskertu ditugu beraien ahaleginak eta lanak. Baina hala ere, bi eguneko greba izan genuen, kulturgileak ertzetan uzten ditugulako oraindik eta ez zaielako merezi duten aitortzarik egiten.

Ez dakit kultura definitzen asmatuko nukeen eta ez gintuela berak sortu bada-kidan arren, bera gabe ez ginatekeela ere sinesten dut. Kultur jardueri eta kulturgileei ezer oparitu gabe, zor zaiena eman behar diegu: aitortza (ekonomikoa ahaztu gabe), espazioa, babesa, balioa...

Finean, beste edozein esparrutan

bezala, zaintza da kolokan dagoena eta lantzeko duguna. Gainera, kultur eragileak taxuz zainduz gero, gehiago izango dira sortze lanetan murgilduko direnak, anitzagoa izango da eskaintza, eta beraz, gehiago izango dira kontsumitzera animatuko direnak, eta horrela, ikuskizunak areagotuko dira eta herriari are bizi handiagoa emango diote. Baina ez nahastu, kontua ez baita gehiago izatea. Zaintzak ekarriko du kopurua berez haztea, eta batzuentzat handinahikeriak direnak egia nola bihurtzen ditugun ikusi ahal izango dugu.

Ondorengoek etxean emateko epidemiarik pasa behar badute, mereziko dituzte ia ereserki bihurtuko dituzten kantak sortzeko Artze bezalako letragi-leak, Zumetaren margoak bezain koloretsuak diren artelanak, eta noski, leihoe-tara kantura, dantzara edo dena delakora animatuko diren herritarrak.

Antton Aizpurua

iritzia

Etxe barrutik

Etxe barruan ari gara pasatzen azkenaldi honetan inoiz baino denbora gehiago. Etxeak ziurtasuna ematen digu, gure usaina du, gure txokoak ditu, gure gustukoa da. Gurea da, finean. Baina badira gureak izan gabe, gurekin harreman estua duten beste batzuen etxeak ere. Horietako bat da, nire kasuan, Eli Larrañaga musika eta piano irakaslearen etxea. Musika eskolarik oraindik ez zen garaian hasi ginen gutako asko solfeo klase-etara joaten. 8 urte inguru nituela uste dut lehenengo aldiz etxe hartara joan nintzenez.

Urteak eman genituen etxe hartara sartu-irtenak egiten, denbora aurrera eta gure eza-gutzak ere bai. Orduan benetan ikasten genuen. Orduak eskaintzen genizkion pianoari eta solfeoari. Eta gainera Donostiako kontserbatoriora edo Zarautza joan behar izaten genuen urtero azterketak egitera mailaz igo

nahi bagenuen. Broma gutxi. Irakasleen prestigioa ere ikasleek ematen zuten mailarekin lotuta egoten zen sarritan, eta estutu egiten zuten.

Elik bazuen zorrotz fama. Bai, egia da. Eskatu egiten zuen. Baina nik hainbat bizipen goxo ere baditut: bere urtebetetze eguna ospatzeko antolatzen zituen meriendak, azterketak egitera joan eta ondoren zinemara eramaten gintuenekoa, bere irakaslearengana eraman ninduen egunekoa... Askok dira oroitzapenak, eta ederrak!!

Gauza asko ikasi nituen klase haietan, solfeo eta pianotik haratago dauden gauzak. Esfortzuak beti duela saria, ondo egindako lanak ematen duen poza, norbaitek estutzen zaituenean, zure onena lortzeko egiten duela... Bizitzan balio duten hainbat gauza baliotsu.

Eskerrik asko, Eli, guztiagatik!!!!



**ALAZNE
TXURRUKA**

Bisoi europarra, Deba ibaiaren bueltan



Iñigo Zuberogoitia



Agustín Rivas

Deba ibaiaren beheko ibilguan ia desagertutzat emateko bazegoen ere, oraindik itxaropen apur bat izateko arrazoi batzuk gelditzen zaizkigu, azkenaldian Deban ere ba omen dabilelako bertako bisoia, Debako estuarioaren tartean, hain zuzen.

Nik duela bizpahiru urte, Casacampoko paduran eta Maxpe inguruan igeri ikusi banuen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuen arabera 2015etik ez zen ageri. Baina, apirilaren hasieran, Praileaitz eta Sasiolaren arteko errepidean kotxeak harrapatuta hilda agertu zen aleak (gertaera tristea) egun bisoi europarra gurean badabilela erakusten digu.

Galtzeko arrisku larrian

Bisoi europarra (*Mustela lutreola*), mustelido erdiakuatiko bat da, txiki samarra: lepozuria baino txikiagoa eta erbinudea baino handiagoa. Iberiar katamotzarekin batera, Europan desagertzeko arrisku handiena duen haragijalea da egun. Duela urte batzuk populazio-gune garrantzitsua zuen Euskal Herriko bi isurialdeetako ibai inguruetan, baina, hainbat arrazoi tarteko, bertatik ere desagertzeko zorian dago. Hori ekidin nahian, besteak beste, LIFE-Lutreola proiektuaren baitan hura kontserbatzeko plan eta ekimen desberdinak garatu dira urteotan.

Habitaten Zuzentarauak lehenasunezko eta Europar Batasunaren intereseko espezieztat jotzen du; beraz, zorrotz babestu beharreko espezie da, eta haren kontserbaziorako eremu bereziak izendatu behar izan dira. Horrela,

Gipuzkoako Bisoi europarraren babese-rako Plan bereziak, Mutrikun kokatzen diren Mijoa, Saturraran eta Xoxuarte erreka eta errekaesteko espezie horrentzako Interes Bereziako Guneztat ditu, Euskadiko Mehatxatutako Espezieen Katalogoan "Desagertzeko Arriskuan" dagoen ugaztuna izaki. Astigarribia auzoko Xoxuarte errekaesteko hain zuzen, Deba ibaiarekin lotura duela jakinik, logiko ikusten dugu bisoiaren berezko eremua Deba ibaira hedatzea.

Gainera, Natura 2000ko Kontserbazio Bereziako Guneak diren Arno eta Izarraitz mendiguneen arteko korridore ekologikoa Astigarribia eta Sasiola artean igarotzen da, hortaz, leku garrantzitsua da espezie horrentzat.

Mehatxu nagusiak Deban

Ibaiaren ertzetako habitataren suntsipena eta uren kutsaduraz gain, Deba ibaiaren inguruetan bizi litezkeen bisoi europarrek badituzte larriagoak liratekeen beste bi arazo; alde batetik, ibilgailuen harrapatzeak; eta, bestetik, bisoi amerikarraren presentzia.

Gure inguruan, Deba ibaian, Europako bisoiak duen mehatxu nagusia Olatzeko bisoi amerikarraren haztegia da. Izan ere, espezie hori erabiltzen



Diego Mendoza

dute larrua lortzeko, eta noizbehinka haztegi horietatik ihes egindako aleak mehatxu handi bilakatzen dira bertako bisoiarentzat, hura espezie handiagoa eta oldarkorragoa izanik, elikagaiak eta espazioa lortzeko lehia irabazten diolako; gainera, errazago ugaltzen da. Horren ondorioz, elkarrekin bizi diren eremuan desagertu egiten da bisoi europarra.

Foru Aldundiak kontratatu duen biologo baten hitzetan, Deba ibaia, hain zuzen, espezie inbaditzaile horren hedapenari aurre egiteko muga litzateke.

Azken urteotan, Gipuzkoako Bisoi Europarraren Gestiorako Planaren baitan (GAO 28/05/2004), Gipuzkoako Foru Aldundia bisoiaren jarraipena ari da egiten. Artzabalgo hezegunean, esate baterako, ur gaineko tranpak jarri ditu bisoi amerikarra detektatu eta harrapatzeko; horrela lortu da hainbat lekutan dentsitatea nabarmen murriztea.

Ibilgailuen harrapatetak Artzabal eta Sasiola arteko errepidean: puntu beltza gure bisoiarentzat

Sasiola inguruan, Arno eta Izarraitz mendiguneak lotzen dituen korridore naturala zeharkatzen duen errepidean, ibilgailuek bisoi europar zein beste haragijale ugari harrapatzen dituzte.

Azken harrapatetarik kezkarria, bisoi europarraren ale hura izan zen. Horrek erakutsi zigun Deba ibaia ere badela eremu garrantzitsu bisoi europararentzat. Horregatik, GFAk faunarentzako pasabide egokiak sortu beharko lituzke errepidearen tarte horretan, bisoi europarrari lagundu nahi badiogu behintzat.

Diego Mendoza, biologo eta naturzalea

Egungo egoerari erantzuteko egokituta, 8.170.000 euroko aurrekontuak onartu ditu Debako Udalak

957.000 bat eurokoa izango da Itziarko Auzo Udalaren aurrekontua



Apirilaren 30ean, telematikoki egindako osoko bilkuran onartu zituen 2020rako aurrekontuak Debako Udalak. COVID-19ak eragindako egoerara moldatutako aurrekontuak dira; "pandemiak egoera zaurgarrian eta laguntza beharrean utziko dituen herritarren zama arintzeko bideratuko dira indarrak", azaldu du udal gobernuak. EH Bildu eta EAJ-PNVren aldeko botoekin eta Debarren Ahotsaren abstentzioarekin onartu dira.

Udala osatzen duten alderdiek eta Itziarko Auzo Udalak elkarlanean landu dituzte aurrekontuok eta herriko eragileekin ere izan da egoeraren berri emateko hartu-eman.

Martxoaren 11ko Ogasun Batzordean jaso zuten aurrekontuek oniritzia eta 17an landu eta onartzeko aurreikuspena zegoen, baina osasun alarma egoerak eraginda atzeratu egin behar izan zen prozesua. Udala berregokitzea lantzen ari zela, Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi zuen Foru Funtzaren kopurua % 20-25 murriztuko zuela. Debako Udalak, 800.000-1.000.000 euro gutxiago jasoko du.

Hori aintzat hartuta eta egoera berriari erantzuteko asmoz landu da, bada, aurrekontu proposamena. Debako 2020ko aurrekontu bateratua 8.170.000 eurokoa izango da; hortik Udalarena 7.918.000 eurokoa, Itziarko Auzo Udalarena 957.000 eurokoa eta Deba Musikal Patronatuarena 606.000 eurokoa da.

2020rako aurreikusita zegoen aurrekontuan, ongizate politiketara bideratutakoa indartu da bereziki, 66.000 euro igoko da guztira. Ogasuneko ere indartu egingo da. Izan ere, bereziki ongizate politika arloan, baina baita

ogasunean ere, laguntzak bideratuko dira egoera honek gehien kaltetutako pertsonentzat. Gainontzeko sailetarako partidak, ondorioz, murriztu egin behar izan dira.

Gizarte zerbitzuetan etxeko etxeko laguntza-zerbitzuaren partida, arriskuan dauden adingabeena eta gizarte beharrezan larrietarako laguntzarena igo dira (30.000 euro). Eta "Stop Alzheimer" proiekturako partida berria sortu da.

Gizarte zerbitzuetara bideratuko dira, halaber, zinegotzien dietak (9.000 euro) laguntzarako poltsa sortzeko.

Bestetik, herriko merkatari, ostalari eta enpresa txikiak laguntzeko, 20.000 euroko diru-partida onartu da, laguntza-bonuen bitartez kudeatuko dena, *Kuttuna* proiektuaren bidez.

Euskara eta kultura sailean eta hezkuntza, kirola eta gazteria sailean, osasun segurtasunagatik egin ezingo diren ekimenetako partidak murriztu dira, baita eragileei ematen zaizkien zenbait diru-laguntza ere. Egoerak onera eginda, kultura eta kirol ekimen jendetsuak egiteko aukera zabalduko balitz, nola bideratu aztertuko litzatekeela azaldu dute udal agintariak.

Zerbitzuetako partidetan gutxieneko kopuruak mantendu dira eta berri bat sortu egoera honek eskatzen duen materiala erosteko (eskularruak, maskarak, manparak, desinfektatzeko produktuak...).

Inbertsio aipagarrienak

Inbertsioak ere murriztu dira, hauek mantenduko direnen artean aipagarrienak: Errementari-Mogel urbanizatzea, hondartzako kabinak berritzea, GIS sistema ezartzea, eskolako jangelako sabaia eraberritzea, haur eskolako kristalak aldatzea, kiroldegirako bizikletak erostea, Agirre jauregiko dantza-gelako lurra berritzea, Errotazarreko hesia berritzea, merkatuko postuetarako materiala egokitzea, "Deba, historiaurreko bailara" proiektua egitea.



JOSE LUIS SUDUPE

Komunikazioa

Lau paretaren barruan horrenbeste denbora igarotzean, hausnarketa batzuk egiteko parada izan dut. Preso sentitu izan garen honetan ere komunikatzeko grina bizi-bizirik sentitu izan dugu, formatu ezberdinetan agerian jarri duguna, bideoak bidaliz edozein aplikazioren bitartez, bideodeiak eginez, sare sozialetan aktiboago izanez, eta, nola ez, balkoi eta leihoetan iluntzeko zortzietako ondo merezitako txalo zaparradan parte hartuz.

Gizakia etengabeko komunikatzaile ikustea interesgarria iruditu izan zait betidanik. Inor ez baitago era batera edo bestera beti komunikatzen egotetik salbu, isilik dagoena barne. Hitz eginez, entzunez eta gorputzaren mugimendu edo mugimendu ezarekin, gure ingurukoei mezuek bidaltzen dihardugu. Etengabeko hartu-eman komunikatzaile hori errealitate berriak sortzeko gai izatean dago nire ustez gizakiaren indar nagusienetako bat, inork kendu ezin diona, gainera.

Berdin al da kexatzea edo zerbait baikorra esatea?, gaizkiesaka edo errespetuz hitz egitea?, haserre edo irribarrez aritzea?, erne edo gogorik gabe entzutea?, baietz edo ezetz esatea?, hitz egitea edo isilik egotea?, eskua ematea edo besarkatzea...?

Garbi dago aukeratzen duguna aukeratzen dugula errealitate ezberdinak sortzen ditugula. Gizakiak badu, beraz, bere mundu txiki-handian eragiteko tresna, indar itzela ematen diona: komunikazioa.

Koronabirusaren ondoren gizarte ezberdin bat eraikitzea suertatuko zaigu ezinbestean, bakoitzaren komunikatzeko ahalmenaz baliatuz egin beharko dena, hitz eginez, entzunez, idatziz, ikusiz, besarkatuz... Formatuak ez du garrantzirik koronabirusaren garaian ikusi izan dugun bezala, aurrerantzean sortuko diren koronabirusen Internet bidez kutsatuko ez gaituzten bitartean behintzat, adiskide!!!



Debarrak munduan

JOSE FRANCISCO LARRAMENDI

Jose Francisco Larramendi Debako Arronamendin, Egia eta Itsaspe auzoen arteko muga egiten duen etxean, jaio zen 1955 urtean. Prestakuntza profesionalaren bi urte egin zituen Elgoibarren. Gaztetan motorrak konpontzea, matematika eta, bereziki, xakean jokatzea zituen gustuko. Oso abila zen xakean. 1981ean bizimoduz aldatzeko gogoz alde egin zuen Kanadara.

Non zaude gaur egun? Zergatik?

Quebec-en, Kanadan. Herri txiki batean bizi naiz, nire oraingo laguna (alargundu egin bainintzen) eta semearekin.

Zerk eraman zintuen horra?

Aire aldaketak, leku aldaketak. Horrelako aldaketa bat nahi nuen.

Zertan zabilta orain?

Orain jubilatuta nago, baina aeronautika arloan makinista-mekaniko lanetan ibili izan naiz Mc Douglas enpresan.

Espero zenuen bezalakoa da Kanada? Zerk harritu zintuen?

Beste herrialde batera joaten zarenean beti topatzen dituzu desberdintasunak. Zerk harritu nauen? Argi dago beste kultura bat dela, baina gaur egun ezer gutxik harritzen nau. Zezena barreraren bi aldeetatik ikusten duzunean konturatzten zara zer den bizitza. Pentsa, hara iritsita, urtebetean frantsesa eta ingelesa ikasi behar izan nituen lan egin ahal izateko.

Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

% 1, oso leku txikia. Baina Debako senideekin dena egiten dut euskaraz. Hori bai, galdetegi honi idatziz erantzuteko arazoak ditut.

Bertako hizkuntzarik ba al dago hor? hizkuntza txiki-rik edo?

Hizkuntza indigena ugari daude, eta, noski, ingelesa eta frantsesa.



Laburrean

Paisaia bat:

bat baino gehiago..., eta San Lorenzo itsasadarra baleekin

Usain bat:

bizi egin behar da jakiteko

Zapore edo jaki bat:

Sirop d'erable, Astigar ziropa

Gustuko dut...

norberaren erritmoan bizitzea

Ez dut gustuko...

norberaren oinetakoekin ibili gabe besteak epaitzen dituen jendea

Amets bat:

inork epaitu gabe bizitzea, baina beti egongo da baten bat zu ezagutu gabe epaituko zaituena



Liburuen mailegu zerbitzua martxan da Ostolaza udal liburutegian

Apirilaren 27an, irakurzaletasuna sustatzeko eta herritarrei liburuak eskuragarri jartzeko, Ostolaza udal liburutegiak mailegu zerbitzua eta liburutegiko buzoia jarri zituen martxan. Horrela, norbaitek etxean libururen bat irakurri edo pelikularen bat ikusi nahi badu, liburutegiko telefonora deituz edo helbide elektronikora mezu bat idatziz egin ahal du eskaera. Gero, segurtasun neurri guztiak betetz (langileek eskularruak eta maskara erabiltzen dituzte eta ahal den guztietan zuzeneko kontaktua saihesten dute), irakurleek liburutegiko leihoaren bestaldetik jaso ahal izango dute aukeratutako dokumentua mailleguan.

Liburuak poltsa konpostagarrietan sartuta jasoko dituzte erabiltzaileek eta ondoren horretarako buzoian entregatu beharko dituzte. Horren ostean, langileek liburuak ondo desinfektatu eta astebetetz eskaini gabe izango dituzte.

Etkez etxeko zerbitzua

Debara jaisten ez diren itziartarrei eta errekaduak egitera ateratzen ez diren 65 urtez gorakoei, berriz, etkez etxeko zerbitzua ari da ematen liburutegia. Kasu horietan liburuak osteguna baino lehen eskatu ahal izango dira eta ostiraletan egingo ditu udal langile batek banaketak, beharrezko segurtasun neurri guztiak betetz, jakina. Itzuli nahi badira bi aukera egongo dira, bata liburutegiko buzoia erabiliz, eta bestea, liburu bat etxean

jasotzen duenean erabiltzaileak etxean dituen liburuak udal langileari emanaz.

Eskaera egiteko, 943192560 telefono zenbakira deitu edo ostolaza@deba.eus helbide elektronikora mezua idatzi behar da. Liburuak jasotzeko ordutegia hauxe da: 8:30etik 14:30era ostegun eta ostiraletan. Edozein modutan, salbuespenez eta hala adostuta, beste egunetan ere jaso ahal izango dira liburuak.

Bazkide ez diren herritarrek liburu eskaera egin nahi izanez gero, bazkide egiteko aukera izango dute. Eskatu aurretik, liburutegiko katalogoan kontsulta egin nahi duenak, berriz, jarraian ditu horretarako webguneak: www.liburubila.euskadi.eus eta www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua/.

Hainbat astez udal liburutegiaren zerbitzua gelditu egon ostean, erabiltzaileek asko eskertu dute berrito martxan jarri izana; argi utzi du hori dagoeneko bertaratu den irakurleen kopuruak.

Eusko Jaurlaritzako protokolo proposamenaren arabera, ekainaren 1ean irekiko dituzte berriz udal liburutegiak, baina hasiera batean behintzat mailegu zerbitzua eskaintzeko bakarrik. Deban leihoa erabiliz liburuak jasotzeko sistema "oso ondo" doala ikusita, arduradunek adierazi digutenez, badirudi horrela jarraituko dutela liburutegia murriztapenik gabe eta lehengo moduan erabilgarri egon arte.



MAIALEN TELLABIDE

(...)

Badago zerbaite inguruan besarkada leun batek bezala biltzen gaituena, ikusezina eta ukiezina. Entzungarria oso, halaber, entzuten ez dugulako sumatzen duguna. Ez dakit zuei herritarrei, baina niri, izugarritzko plazera ematen didana. Beti esaten dugu ez garela kontratzen daukagunaz galtzen dugun arte, baina nik ez dut hutsune erraldoi hau betetzeko apetarik. Isiltasunean eroso eta lasai bizi naiz, inguratzen nauena hobeto ezagutu dezakedalako, errazago ikusi.

Herriak batzuetan *Spaghuetti Western* pelikulen dekoratua ematen duen arren, autoen, autobusen eta kamioien burrunba jasangaitz bilakatu zait, jada ez dira nire paisaia akustikoaren erdigunea. Aspaldiko partez, txoriak eta txoriak besterik ez ditut entzuten, nire pausoak! Nire zakurrarenak! Pentsa zein handiak diren zuhaitzak, mendiak edota itsasoa, eta ez dute gure aldean ia zaratarik egiten. Irmo, tente eta duin, egonean besterik ez, miresgarri eta eredugarri. Agian norbera jasaten ikasteak badu zerikusia irmotasuna eta duintasuna lantzen hastearekin, egon beharzagatik egoten ikastearekin, eta hobe tente baldin bada. Ordea, nik ez dakit ezer... baina nork daki? Edonola ere, egin ditzagun isiltasunean hausnarketa guztiak, hala behar du.

Aire zikina arnastera ohitu ginen bezala zarata kutsakorrera ohitu ginen, eta ongi dakigu hau ere gure errua dela. Orain zarata gure etxeetara mugitu dugu, zer erremedio! Seguruenik bizkor bukatuko da gure belarrientzako oasia, baina tira, gozatu dezagun ahal dugun bitartean.



Ekainean abiatuko da TAO sistema Nafarroa plazan



Nafarroa plazako TAO sistema ekainean 1etik irailaren 15era arte egongo da indarrean, egunero. Aurreko urteetan, sistema maiatzeko asteburuetan abiatu badute ere, egungo egoera berezia aintzat hartuta, hilabete honetan ez da ibilgailuak aparkatzeagatik TAOa kobratuko eremu horretan. Udalak jakinarazi du aurten kreditu txartel bidez ordaintzeko aukera ere izango dela.

Bideen ordenantzaren hasierako onarpena egin du Udalak

Apirilaren 30ean egindako osoko bilkuran udalerriko bideen ordenantzaren hasierako onarpena egin zen, gehiengo osoz. Udal titulartasuneko bideen erabilera partekatua, berezia eta ohikoa arautzen ditu aipatutako ordenantzak, narriatu ez daitezkeen ibilgailu astunak bertatik igarotzearen eta, bereziki, basogintzako ustiapenak direla eta egurra eta peiak garraiatzetik eratorritako aprobetxamenduaren ondorioz.

Horrez gain, Kultur Ondasun moduan sailkatuta dagoen Donejakue Bidearen zatian, Udalak bermea ezarriko du nekazaritzarako eta basogintzarako makinak erabilera baimendu baino lehen. Makinek pistetatik igarotzean kalteak eraginez gero, zorua bere onera ekarriko dela ziurtatzea da horren helburua.

Ordenantza udalerriri osoan aplikatzen da. Eta, udal titulartasuneko bideak erabili behar izatekotan, lizentzia eskatu behar-ko zaio Udalari; egurra ateratzeko, harrobiko materiala ateratzeko, lurra leku-aldatzeko, partzelen betelanak eta egokitze-lanak egiteko, hondakinen isurketa hondakindegietan egiteko edota obra zibilak egiteko bideak erabiltzeko.

Deba eta Mutriku lotzen dituen zubiaren lanak abiatzeko izapidea onartu dute

Debako Udalak jakitera eman duenez, Deba eta Mutriku lotzen dituen zubiaren konpontze lanen bigarren faseari ekiteko azken izapide administratiboak abiatu dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak lanak egiteko hitzarmen proposamena helarazi dio duela gutxi Debako Udalari, eta aurreko apirilaren 30ean egin zuten udalbatzaren osoko bilkuran aho batez onartu zuten proposamena.

Zubiaren jabetzaren zati bat Debarena da eta, bestea, Mutrikurena. Hori dela eta, Mutrikuko Udalari ere proposamen bera bidali dio Aldundiak, eta Mutrikun ere, egun berean, proposamena aho batez onartu zuten. Bi herriko udalen oniritzia jaso ondoren, bi herriak lotzen dituen zubiaren konpontze lanen bigarren faseari ekiteko izapide administratiboak abiatu ahal izango ditu orain aldundiak.

Debako Udaleko iturriek diotenez, udalen eta Aldundiaren arteko hitzarmenaren arabera, Aldundiak bere gain hartuko luke zubia desmuntatu eta berreraikitze bigarren faseko lanen finantzaketaren ardura. "Zubiaren jabegoa Mutriku eta Debarena da, baina obrak duen tamaina ikusita, konpontzeko ardura

Aldundiari ematen diogula adostu da lankidetzaz hitzarmen horren bitartez". 41 aste iraungo duten obraren lizentziazioa Aldundiaren esku geratuta, erakundeak bere gain hartuko luke obraren 3.014.737,77 euroko inbertsioa. "Diputatuen Kontseilura eramatea izango da hurrengo urratsa; baiezkoa jasotzen badu, lanen esleipen-prozesuarekin hasiko dira".


Bi udalek azpimarratu dutenez, ibaiaren alde bateko zein besteko herritarrentzat garrantzitsua den azpiegitura azkenean konpontze bidean jarriko dela jakitea albiste ona da. "Elkarbizitzarako garrantzitsua izan da zubi hori Deba eta Mutrikuko herritarrentzat. Izan ere, asko dira zubiaren alde batean bizi, baina egunerokoan ibaiaren beste aldera jotzen dutenak".

2018ko uztailaren 5ean erori zen Deba Mutrikurekin lotzen duen oinezko pasabide bakarra. Lanen lehen fasean tamaina handiko egitura osagarri metaliko bat ipini zuten zubi gainean, lehen eta hirugarren zutabeen gainean, kolapsatu zen gangari eusteko. Hurrengo fasean, berriz, zubia piezaz pieza eta harriz harri desmuntatu beharko dute, eta gero berriro eraiki, jatorrizko planoaren arabera.



2018ko uztailaz geroztik, zubiaren hausturak kaltetutako bizilagunek igarobide seguru eta irisgarria eskatzen jarraitzen dute oinezkoentzat, egungo pasabideak ezaugarri horiek ez dituela salatuz.

“NORMALTASUN BERRI”RAKO BIDEAN, KEZKA ETA ZIURTASUNIK EZA NAGUSI ORAINDIK ERE



Larritasun egoera ezarri zenetik, baimendutako egoeretan bakarrik atera daitezke herritarrek kalera edo lantokietara, baina oraingoan, badirudi EAEn konfinamendua arintzeko ezarritako planak “normaltasun berri”rako bidea zabaldu duela. Hala ere, alarma egoera hilabete batez luzatu nahi duela esan berri du Pedro Sanchezek eta ezjakintasuna da nagusi: gaitzaren eta beharrezko neurrien inguruko zalantzak, informazio nahasiak... “noiz arte luzatuko da hau dena?” eta, batez ere, “zer gertatuko da alarma eta konfinamendu-egoera amaitzean?”.

“Normaltasun berria” ekain amaieran lortu nahi du Pedro Sanchezek, hori bat letorke alarma egoeraren azken luzapenaren amaierarekin (Kongresuan onartuko balitz).

0 fasean, Debako udalerrian administrazioari dagokionez bi instituzio juridiko daudenez (Udala eta Itziar Auzo Udala), 5.000 biztanle baino gutxiagoko 2 gune ezberdin ziren (ordutegirik ez, eta kirola egiteko gune zabalak).

Egun, 1. fasean, haurrak ordu bateko mugaz irten daitezke kalera oraindik, baina etxetik urruntzeko distantzia eta familiako partaide kopurua mugarik gabe. Terrazak zabalik daude beren edukien % 50era. Negozio eta denda txikiak ere ireki dezakete. Lagun edo senitartekoak bildu daitezke; gehienez hamar laguneko taldeetan eta ez espazio itxietan.

Maiatzaren 18tik aurrera, berriz, fase artea izan arren, neurri batzuk malgutu dira: probintzian mugitzea baimendu du Jaurlearitzak, eta 10.000 biztanletik beherako herrietan ordutegiak kendu ditu Madrilak (EAEn, beraz, 36 udalerritan). Arrantza eta ehiza ere baimendu dituzte.

Okerrik ezean, maiatzaren 25etik aurrera abiatu nahi dute bigarren fasea, EAEn, neurri hauekin:

- Maskararen erabilera sustatu nahi du Gobernuak zenbait eremutan eta Osasun Ministerioak maskaren erabilera arautuko du.

- Herritarrek bigarren etxebizitzetara joan ahal izango dute, etxea bizi diren lurralde historikoan badago. 5.000 biztanletik beherako herriek (baita Debak ere) ordutegirik gabe jarraituko dute, turistekin kopuru hori gainditzen badute ere.

- Taberna, jatetxe eta ostatuek barnean ere bezeroak hartu ahal izango dituzte, edukiera % 30era mugatuta.

- Zinemak, antzokiak, liburutegiak, aretoak, museoak... ireki ahal izango dituzte, edukiera % 30era mugatuta (Jaurlearitzak esana dauka ekainaren 1era atzeratu nahi duela neurri hori).

- Areto itxietan kontzertuak egin ahal izango dira, edukiera %30era mugatuta (Arabak, Bizkaian eta Gipuzkoan, ziurrenik, ekainaren 1etik aurrera). Aire librean kontzertuak egitekotan, eserita izan beharko dute, eta 400 pertsona arte bildu ahal izango dute.

- Gurtza lekuek edukieraren % 50 arte betetzeko aukera izango dute.

Jostun taldea eta elikagaien bankua

Deseskalatzeari hobeto erantzun ahal izateko Deba-Itziarren jostun taldea sortu dute herritar boluntario ugariak. Bi txandatan sortu dituzte maskarak; lehenengoan 970 maskara egin zituzten eta horietako 370 boluntarioek, Gurutze Gorriak eta Caritasek banatu zituzten etxetik etxera Itziar eta Deban, gainerako 600ak, aldiz, egun zehaztuta banatu zituzten boluntarioek Simon Berasaluzen plazan. Bigarren txandan, 644 maskara egin dituzte eta horietatik maiatzaren 18ko astean banatu dituzte.

Horrez gain, herritarrek hala eskaturik, Caritas eta Gurutze Gorriak, Udaleko Gizarte Zerbitzuekin batera, bi hilabetez elikagaiak banatzen aritu dira etxetik etxera (berrogeita hamar familiak jaso dituzte gutxi gorabehera aldiko). Urtean zehar ere egin izan dute banaketa Caritas eta Gizarte Zerbitzuen artean. Orain, aldiz, elikagaien bankua hornitu beharra daukate eta horretarako janari iraunkorra eta paxa-oihalak biltzeko kanpaina jarri dute abian. Elizan bilduko dituzte, San Antonioren kaperan (lehenengo ezkerretara). Eliza irekita egongo da horretarako 9:30etik 13:00etara goizez eta 18:15etik 19:45era arratsaldean. Bestalde, norbaitek diru-eskaintzaren bat egin nahi izanez gero, Caritasek duen kontuan egin dezake: 2095 5034 63 1064044028.

Une hauetan, herritar bakoitzak du bere istorio pertsonala, bere lanbideagatik, afizioagatik edo bizitzako une oso berezi batean harrapatu duelako honek guztiak. Zuengana hurbildu gara berriro, hona hemen kontaktu diguzue:





JORDINA ARNAU
28 URTE
Kazetaria, komunikatzailea

“Krisi honen aurrean osasun publikoa indartu beharko litzateke”

Gaixotasunaren zein fasean zaude? Nolako tratamendua daramazu?

Orain erradioterapia fasean nago. Egunero, asteleheneetik ostiralera, erradiazioa ematen didate onkologikoan lesio kantzerigenoekin kontaktuan egon diren ehun guztiak erre eta zigitatzeko.

Zer aldaketa suposatu du koronabirusaren osasun-krisiak zure eguneroko horretan?

Koronabirusaren krisia niri bigarren ebakuntza egin eta hurrengo astean lehertu zen, eta, esate baterako, orbainaren ikuskapena telefonoz egin nuen, ospitalera joan behar ez izateko. Telefono bidez egin ezin zizkidaten kontsultak ere, erradioterapia-

ren aurrekoak adibidez, oso desberdinak izan ziren: medikuekiko distantzia, profesionalen aurpegia ikustea eragozten zidan maskara, edo zentrorako sartu-irtenetan egin beharreko prebentzio-erritualengatik. Krisi honek erradioterapiaren planifikazioa ere aldatu du. Esposizioa gutxitzeko ospitalera joan beharreko egunak erdira murriztu zizkidaten eta egun bakoitzean erradiazio gehixago eman.

Orain lehenengo pertsonan ezagututa, nola baloratzen duzu gure osasun-sistema?

Orokorrean oso ondo baloratzen dut. Minbizia diagnostikatu zidatenetik prozesu osoa oso azkarra izan da eta

jaso dudan arreta paregabea. Profesional guztien giza-kalitatea nabarmenduko nuke, zalantzarik gabe. Krisi honen aurrean osasun publikoa indartu beharko litzateke, eta murrizketa bakarra ere ez onartu gizartearentzat giltzari den alor honetan!

Gaitz askorekin alderdi emozionala zaintzea fisikoa zaintzea bezain garrantzitsua izan daiteke.

Prozesu honekin hasi nintzanean onkologikotik babes psikologikoa eskaini zidaten niretzat eta nire inguru hurbilenarentzat. Alderdi emozionala zaindu dut eta terapiari nabil. Mundu guztiari gomen datzen diot! Burua zaintzea gorputz osoa zaintzea da!

Zer moduz zaude? Zein da zure egoera momentu honetan?

Egia esan ondo sentitzen naiz, orain dela denbora bat baino askoz hobeto. 11 hilabete daramatzat bularreko minbizia desagerrarazteko tratamendu eta ebakuntzekin eta badirudi pultsua irabazten ari nazaiola.



ITSASO ARAMENDI
34 URTE
Irakaslea

“Osasun-krisiaren erdian izanda ere, erditze hau askoz lasaiagoa izan da”

tokatu zaigu, eta, ondorioz, azken txanpara arte ez dut arazo berezirik izan. Umea jaio bezperan errebisioa geneukan ospitalean, eta bakarrik sartu behar izan nuen, bikotekideari ez baitzioten utzi sartzen. Erditzeko momentuan ere berdin: ospitalera iritsi, eta benetan erditzearen nengoela ikusi arte, bikoteak kanpoan zain egon behar izan zuen. Gainontzean, paseoen aldetik eta, ez dut arazo berezirik izan; baserrian pasa baitugu koronabirusaren krisi guztia.

Osasun-krisian bete-betean etorri da bigarren umea, zein alde sumatu dituzu aurreko erditzetik?

Nire kasuan, erditzean alderik handiena ez dago osasun-krisiari zuzenean lotuta.

Lehen erditzea oso luzea eta konplikatua izan nuen, eta oraingo honetan ospitalera iritsi eta ordubetera umea jaio zen. Ondorioz, erditze hau, osasun-krisiaren erdian izanda ere, askoz lasaiagoa izan da.

Erditze ostean erditze gelatik ez gintuzten normalean bezala gela batera eraman, erditu ginen emakume guztiok UCSI izeneko gela batean igaro genituen hurrengo orduak, denok elkarrekin. Zorionez egun horretan bi emakume baino ez ginen erditu. Bestalde, 24 orduren ondoren altak ematen ari ziren koronabirusagatik, eta, gure kasuan, 18 orduren buruan etxera etorri ginen. Tarte horretan ezin izan ginen gelatik atera ez ni eta ezta nire bikotea ere, eta bisitarik ezin izan genuen jaso.

Nola baloratzen duzu gure osasun-sistema?

Ni oso pozik nago Osakidetzako profesionalen partetik jasotako tratuaengatik. Ospitaleak egun horietan beldur pixka bat ematen bazuen ere (pasillo hutsak, babes neurriak...), behin erditze gelara sartuta hori guztia ahaztea lortu genuen, eta hori, bereziki, Erika emaginari eta Alana erizain laguntzaileari esker izan zen. Bereziki eskertuta nago haiei.

Alderdi emozionala zaintzea fisikoa zaintzea bezain garrantzitsua izan daiteke.


Oraingoz ondo daramagu. Egia da familiako eta hurbileko pertsona askok jaio berria ikusi ere ezin izan dutela egin, baina ziurrenik eurek hori okerrago daramate guk baino.

Jakin dugu bigarren aldiz erditu zarela. Noiz jaio da umea? Zer moduz zaudete?

Apirilaren 18an jaio zen, larunbatez. Umea primeran dago eta etxeko gainontzeak ere bai.

Haurdunaldiaren azken zatian koronabirusaren eraginez zailtasunik izan al duzu?

Koronabirusaren krisia haurdunaldiaren azken zatian



PATXI AIZPITARTE
64 URTE
Apaiza

“Sinestedunontzat, fedea da beldurra desaktibatzen laguntzen diguna”

janari-banaketei ere (beharrean daudenei alokairuen ordainketa eta biziraupena ziurtatzen lagunduz), eta elkartekideok komunikatzen saiatu gara.

Aste Santua, elizkizunak, hiletak, ezkontzak, jaunartzeak... zein da egoera gaur egun?

Ez dugu Aste Santuko elizkizunik izan aurtan. Dozena erdi bat pertsona hil dira denboraldi honetan eta batzuei kanposantura laguntzeko aukera izan dugu, beren hiletak atzeratuz. Lehen jaunartzeak, adibidez, maiatzaren 10ean ospatu behar genituen, baina hauek ere gerorako utzi behar izan ditugu.

Zer eragin izan du osasun-krisi honek zuen egunerokotasunean?

Esperientzia guztiz berria izan da: eliza eta bilguneak itxita; ospakizunak, hitzaldiak, bilerak, adineko eta gaixoen bisitak bertan behera utzita eta abar. Baina positiboa, bestalde. Caritaseko harrerei eutsi diegu eta baita

Nola eutsi diozu eliztarrekin duzun harremanari? Ondo moldatu zara?

Aurrez aurreko harremanik ezean, telefonoz, whatsapppe, korreoz... moldatu gara harremanetan jarraitzeko. Nire aldetik, egunero idatzi dut gogoetatxo bat eta whatsapppe bidali parroko taldeetara.

Beldurra, kezka, antsietatea... ohiko bihurtu zaizkigu azkenaldian. Nola aurre egin?

Osasun krisi honek kolokan jarri ditu gure hainbat segurtasun. Dena kontrolpean genuela uste genuen eta umildu egin gaitu. Erakutsi digu posible dela bizitzaz gozatzea hainbeste mugitu,

kontsumitu eta aztoratu gabe. Gure giza-kondizioaz jabetzea eta elkartasun hurbil eta beroa oinarritzeko dira. Sinestedunontzat, fedea da beldurra desaktibatzen -ez erabat uxatzen- laguntzen diguna.

Nola aurreikusten duzue izango dela zuen ohiko jardueretara itzultzea?

Maiatzaren 4an hasi ginen eliza goitzez irekitzen. Maiatzaren 11n, eguneroko meza ospatzen hasi ginen, eta asteburu horretan, maiatzaren 16-17koan, igandeko lehen Eukaristia egin genuen Lasturren, Deban eta Itziarren. Bilkurak egiteko moduan ere dagoeneko bagara.



MOUSSA BOUTARA HADDARI
49 URTE
Mekanikaria

“Aurtengo ramadanak aukera eman digu baraualdia espiritualki betetzeko”

izaten duzue Ramadana. Zertan oinarritzen da bere praktika egunerokotasunean?

Ramadana bederatzigarren hilabeteari dagokio egutegi arabiar-musulmanean; barauhilabetea ere deitzen zaio. Aldi horretan errebelatu zitzaion korana Muhammad (PB) profetari.

Allah-rengana (jainkoa) hurbildu eta beharrezana dutenei laguntzeko aukera ematen du. Baraualdia derrigorrezkoa da edozein musulmanentzat, gizon zein emakume; burugaitasun osoa izan eta osasun fisiko onean daudentzat. Hortaz, baraualdi hau ez da haurrentzat edo gaixotasun kronikoak dituzten musulmanentzat derrigorrezkoa. Aitzitik, horiei hain justu baraurik ez egitea gomenda-

tzen zaie, osasuna mantentzea betebeharra baita Islamean.

Ez da beharrezkoa haurdun edo edoskitze-aldian dauden edo hilekodun emakumeentzat ere, edo erditze osteko odol-isuria dutentzat. Hala ere, baraurik egin ez den egun horiek urtean zehar konpen-tsatu beharko dira.

Zenbat pertsonak egiten duzue Deba-Itziarren eta zelan bizi duzue aurtentzat?

Esango nuke musulman gehienek egiten dutela. Alde positiboa begiratu beharra dago, konfinamenduarekin, aurtengo ramadanak aukera ematen digu baraualdi osoa espiritualki betetzeko, hau da, Korana irakurriz eta meditatuz (irakurritakoaz, norbere buruaz, bizirauteaz, behar-

tsuez, gaixoez etab.).

Urtebete pasa da elkarte ireki zenetik. Nola baloratzen duzue egindako ibilbidea?

Oso ondo! Hala ere, oraindik egiteko asko dago gure komunitatea osatzen duten kulturak ezagutzera emateko, eta herrian, zehazki, eta Euskal Herrian, orokorrean, integrazteko gure helburua bete ahal izateko.

Nola aurreikusten duzue izango dela zuen ohiko jardueretara itzultzea?

Animo handiz, lehenengo irekitze-egun hura balitz bezala. Guztion ongizaterako dauzkagun helburuak lortu ahal izateko, kultur elkarrekin koordinatuta elkarlanean aritzeari ekingo diogu.

Pakea Deba meskita eta kultur-guneko kide zara, zer eragin izan du osasun-krisiak zuen egunerokotasunean?

Meskitaren funtzioetako bat egunean bost otoitz egitea da; horretan eragina izan du, baina baita fededunen arteko eguneroko harremanetan ere.

Apirilaren amaieran abiatzen den ospakizun berezia



GETARI ETXEGARAI
39 URTE
Aktore eta zuzendaria

Antzerki-mundua afizio duzu baina baita ofizio ere. Zertan zabilta gaur egun?

Niri konfianendu honen erdian, mirari baten moduan, lana atera zait eta EITBko umore programa berri batean nabil lanean, aktore, zuzendari eta idazle moduan. "Barre Librea" deitzen da eta Aitziber Garmendiak eta Jon Plazaolak zuzentzen dute. Maiatzaren 15ean estreinatu da.

"Ez gara batere babestuak sentitu eta horrek ondorio larriak ekarriko ditu"

Zer eragin izan du osasun-krisiak zure bizitza profesionalean?

Hiru antzerki desberdinekin nabilen Estatu osoan zehar, aurrera eta atzera, konfinamenduaren aurretik (*Erlauntza, Simplicissimus* eta *Lyceum club*). Nik zuzendutako pare bat obra ere bazebiltzan dantzan (*Lur* eta *Mi último baile*) baina orain hori guztia gelditu egin da eta ez dakigu noiz edo nola bueltatuko den. Desastre.

Bada sortzaile eta kultur-gileak babestuko dituen neurririk etenaldi honi aurre egiteko?

Ez dizkigute gauzak erraz jarri, ez gara batere babestuak sentitu eta horrek ondorio larriak ekarriko ditu. Orain uste dut atera dela laguntza-

ren bat baina ni, adibidez, martxoaren 14tik ekainaren 1era diru-sarrerarik gabe egongo naiz. Kontratu berria dudanez, ez dut laguntzarik jasoko eta ez dut galdutakoa berreskuratuko. Hori bai, hipoteka eta beste hainbat gauza ordaintzen jarraitu dut, aurreztuta neukan diruarekin.

Ikus-entzunezkoak kontsumitzeko ohitura aldaketa bat gertatu da azken urteotan, are gehiago konfinamenduan. Zein lekutan utzi du horrek euskal antzerkigintza?

Ez gara kompetentzia, bi gauza oso desberdinak dira, antzerkiak gauza batzuk ematen dizkizu eta pantailak beste batzuk. Antzerkiak, ordea, bai beharko duela orain bultzada handi bat, beraz, aukera ematen digute-

nean, jendeak antzokiak betetzea espero dut, pantailak beti egongo baitira hor, baina gu, horrela jarraituz gero... auskalo!

Nola irudikatzen duzu zure etorkizun profesionala?

Antzerkiari dagokionez zalantza handiak ditugu, normaltasuna urruti samar ikusten dugu eta bitartean egoera kudeatzeko beste bide batzuen bila gabiltza. Niri bizitzak irri egin dit; telebistan nagoenez nahiko lasai nago momentuz eta uztailean baliteke film bat grabatzen hastea, beraz, epe laburrean ez dut kezka handirik. Hala ere, egoera, orokorrean, oso kezagarria da eta kideengatik bada ere, borrokan jarraituko dugu beharrezkoak diren laguntzak irits daitezzen.



XABI OSA
27 URTE
Kirolaria eta crossfit entrenatzailea

Kirola afizio duzu, baina baita ofizio ere. Zertan zabilta gaur egun? (maila profesionalean, proiektuak...)

Gaur egun Crossfit-a nabil entrenatzen. Urtebete hartu dut Mundialerako hobeto prestatzeko. Urrian ditugu klasifikatoriak eta gogo handiarekin nago entrenatutakoa bertan testatzeko.

"Material zehatzarekin entrenatu behar dugunok ezin dugu, kirolariontzako neurriak hobetu ahal izango lirateke"

Ze eragin izan du koronabirusak zure eguneroko kirol-jardunean?

Entrenamenduak aldatu egin zaizkigu. Jarraitzen dugu entrenatzen baina azkenean material aldaketak beste gauza batzuk prestatzera behartu gaitu. Oinarria (mugikortasuna, egonkortasuna, indarra) hobetzen gabiltza etxetik, material gutxiago dugu eta. Hori bai, etxean ere, hobetzen jarraitzen dugu, posible da eta. Material falta ez da aitzakia.

Aurreikusita zenuen proiektu edo lehiaren bat bertan behera gelditu al zaizu?

Bai. Martxoan bikoteka

nuen lehiaketa bat eta oraingoz atzeratu egin dute urrira. Ez dakigu gauzak hobetuko diren lehiaketa egiteko adina, baina entrenatzen jarraituko dugu prest egoteko.


Nola ikusten dituzu konfinamendu-neurriak kirolaren ikuspuntutik?

Gustatuko litzaidake boxera (Crossfit-eko gimnasia) joan ahal izatea. Ez diot zentzurik ikusten tabernara edozein ordutan joan ahal izateko aukera izanda kirolariok ezin entrenatu ahal izateari. Kanpoan gauza asko egin ahal dira eta zentzu horretan oso ondo. Baina material zehatzarekin entrenatu behar dugunok, ezin

dugu. Beraz, nire ustez, zentzu horretan hobetu ahal izango lirateke neurriak kirolariontzako.

Entrenatzaile ere bazaren aldetik, gomendiorik bai herritarrontzako?

Mugitu. Etxean ere mugitu gaitezke. Neurriak direla eta, ezin gara hainbeste atera. Baina paseatzera irten, etxean ordu erdiz entrenatu astean lau egunez gutxienez, ur asko edan eta janariarekin kontua izan. Egunean hiru janari handi egin, azukrea murriztu, frijitutako gutxi jan eta erosketak egitean, arreta jarri erosten duzunari. Erosten ez duzuna ez da bistan egongo zu tentatzen.



IKER VELA
31 URTE
Musikaria, irakaslea

“Argi dago musika sektorea izango dela normaltasunera itzultzen azkena”

Musika zure bizitzako ardatzetako bat da. Zertan zenbiltzan egoera berezi honek harrapatu gintuenean?

Asteburu horretan bertan hastekoa nintzen nire bi taldeekin emanaldietan. Egun batetik bestera urtea guztiz aldatu zait. Asteburuak musikaren inguruan bizi eta gozatzetik, bat-batean ezjakintasun egoerara pasa dira. Egurra ta Kittorekin martxoan hasi behar genuen ofi-

zialki aurtengo tourra eta Talka taldearekin ere urteko lehen kontzertuak ematen hasi behar genuen, baina dena bertan behera geratu edota atzeratu zaigu.

Egoera berrira nolabait egokitu zarete?

Egurra ta Kittok, baita Talkak ere, ez dugu inoiz managerrik izan. Eta gure kabuz ibiltzeak kontzertu agendaren inguruko buru-haustek ekarri dizkigu; zoramena. Kolokan dugu agenda guztia: lotuta genituen kontzertuak atzeratzen saiatzen ari gara, baina antolatzaileek ezin dute ezer ziurtatu; lotzeko bidean genituenak, berriz, *stanby* egoeran.

Hemendik, beraz, deia antolatzaileei egoera hau normalizatzen denean data berriak bilatzen saiatzeko, kontzertuak bertan behera utzi gabe.

Euskal kulturagintzaren greba digitalak zer esana eman du. Nola dago sektorea?

Argi dago musika sektorea izango dela normaltasunera itzultzen azkena. Ezin ditugu gure kontzertuak jendearen arteko bi metroko distantziarekin irudikatu. Sektorearen egoera oraintxe ezjakintasunezkoa dela esango nuke.

Animoak bidali nahiko nizkieke gure inguruan dabilen teknikari, diseinatzaile, soinu enpresa eta abarrei. Guk hobby-a galtzen dugu, baina beste askok euren ogibidea. Bestetik, hau guztia amaitzean gurekin hasieratik izan diren eta beti hor dauden gazte asanblada edota jai herrikoien aldeko kolektiboek laguntza beharko dute, baita pandemia honek sortuko dituen prekarietate eta pobrezia egoeraren direnek ere. Gu hor egongo

gara, hori da niretzat benetako euskal kultura.

Konfinamenduak aretoen ateak itxi ditu baina sormenaren leihoak ireki.

Sormenak itxialdi hau hobeto eramaten lagundu duela uste dut. Ideia berriak sortzeaz gain kontzertu akustiko batzuk emateko aukera ere izan dugu etxetik eta pozik alde horretatik. Hala ere, gu kalekumeak gara, eta irrikaz gaude zuzenean zarata ateratzeko!

Nola aurreikusten da izango dela emanaldiei berrekitea?

Faktore asko hartu behar dira kontuan; gauza asko eta erantzun gutxi, oraingoz. Oso baikor izanda esango nuke publikoa normaltasunez saltoka dabilen kontzertu bat jotzerako urte amaiera izango dela.



IRENE SARRIONANDIA
71 URTE
Irakasle ohia eta kirolaria

“Lehiaketatik aparte, aisialdian, etxekoekin eta lagunekin, mendira oinez eta bizikletan irteerak egitea oso gogoko dut”

Badakigu kirolzale amorratua zarena. Zertan zabil-tza baina gaur egun?

Betiko martxan nabil. Etxeko lantxo batzuk, kirola, urtuko lanak...

Hain pertsona aktiboa izanda, nola eraman duzu konfinamendua?

Tira, nahiko ondo dara-

mat. Kirola etxean egiteko proposamen politak eskaini dizkigute kiroldegiko Ion eta Yurik alde batetik eta Bingen Esturoren 360 Mugiment eta Exeri ere topera egin ditut eta arrabolan hainbat saio. Arratsaldetan ortuko lana... aspertu gutxi!

Aurreikusita zenuen proiektu edo lehiaren bat bertan behera gelditu al zaizu?

Bai, bat baino gehiago. Hasteko, martxoan egin behar zen Lasturko Mendi Martxa bertan behera geratu zen. Gero Camille Xtrem eta Vignemaleko Trailarekin gauza bera gertatu da. Oraingoz mantentzen dena,

Gorbea Suzien, irailaren bukaeran denez, korritzea espero dut.

Eta proiekturik begi bistan izaten ez duzunean zein izaten da indarra ematen dizun motorra?

Epe laburrean ez badago pizgarririk gero egongo dela pentsatzeak laguntzen dit alde batetik.

Lehiaketatik aparte, aisialdian, etxekoekin eta lagunekin, mendira oinez eta bizikletan irteerak egitea oso gogoko dut naturan murgiltzea dakarrelako. Astebete edo birako planak izaten dira, Pirinioetan, Andorran, Maestrazgoan... eta denbora luzeagorako Hego Ameri-

ketan ere bai.

Aurten ikusi egin behar noraino mugitu gaitezkeen, mugaz alde honetan edo bestean... ikusiko dugu.

Zure adinak zu bezain sasoiko harrapatzea nahi genuke denok, zein esango zenuke direla horretarako klabeak? Gomendiorik emango al zeniguz?

Osasun arazorik ez dut eduki, gurasoek material ona emango zidaten... Aparteko gauza askorik ez... kirola atsegin baduzu, zure esku dauden aukeretatik zerbait egin eta aktibitatea mantendu, hori bai. Giltza jarraipena izango litzateke. Horretan izan burugor!

SARE SOZIALAK: ONURAK ETA DESABANTAILAK

Sare sozialak nerabeen zein gizarte osoaren eguneroko digitalak bilakatu dira. Konturatu orduko, 280 karakteretan konta dezakegu gure eguneko unerik esanguratsuen edo, bestela, segundo batean, klik soil batekin.

Nerabeek ere ordu asko igarotzen dituzte sare sozialetan eta orain, are gehiago, lau paretaren artean mugatuta sentitzerakoan. Egoera horren aurrean, gure ikasleek balantza baten gainean jarri behar izan dute sare sozialen gaia. Une batzuetan desabantailak hartu dute pisurik handiena eta, beste zenbait unetan, berriz, abantailak. Non ote dago oreka? Ondoko artikuluetan jaso dituzte euren iritzi nagusiak.

HAIN GARRANTZITSUAK AL DIRA SARE SOZIALAK?



Sare sozia-
lek gaur egun-
go gazteen
bizitzako zati
handi bat be-
tetzen dute.

Beraien egune-
rokotasunean
erabiltzen duten

tresna bat da, eta gazte askorentzat bizitzeko ezinbestekoa. Argi dago haurrek eta gazteek txikitatik jasotzen dutela sare sozialen eragina; baina, inoiz jarri al zara pentsatzen ea zeintzuk diren teknologia berri honen abantaila eta desabantailak?

Luze aritu naiz pentsatzen eta argi dagoena da sare sozialak informazio pila bat ezagutzeko ateak direla, eta informazio hori klik batera daukagula. Hala ere,

informazio faltsu asko dabil sarean eta honekin kontuz ibili behar dugu, informazio hau arriskutsua izan daitekeelako eta askotan nahastu egiten gaituelako. Horregatik esaten da ez sinesteko sareetan ikusitako guztia, ziurrak diren iturrietakoak bakarrik. Informazio egokia ongi erabiliz gero, gauza berri asko ikas ditzakegu eta horri izugarritzko abantaila dela deritzot.

Bestalde, gaur egungo gazte askok bizitza errealean gertatzen dena galtzen dute mugikorrari itsatsita egotearren, hau da, esperientzia polit asko bizitzeko aukera dutenean, askotan dena filmatu beharra daukate sarera igotzeko eta, beraz, ez dituzte uneak behar bezala disfrutatzen. Era berean, gaur egungo gazte-

diaren kezka handienetako bat da sare sozialetan zenbat *like* (atsegin dut) edukiko dituen pentsatzea, ez al zaizue iruditzen tristea? Niri bai.

Bukatzeko, sare sozialei garrantzi handiegia ematen diegula esan nahi dut, bizitzako momentu pila bat daukagula bizitzeko; eta sare sozialak oso ongi daude gauza askotarako, baina ez al zaizue iruditzen behar baino gehiago erabiltzen ditugula? Ondo egongo litzateke errealitateari kasu gehiago egitea, sareak alde batera utzita, eta benetako garrantzia duten uneak gehiago disfrutatzea eta bizitzea. Bizitza bat daukagu eta ezin dugu denborarik galdu!

Amalur Ponce



Prentsa tailerra 2019-2020

Leire Acebes, Nora Ait Akki, Kerman Aizpurua, Ione Aranberri, Ane Castillo, Urko García, Kimetz Oñederra, Nadia Peralvo, Ibai Perez, Amalur Ponce, Nerea Urbizu, Maddi Urkiri eta Haizea Zubimendi.

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

laguntzaileak:



babesleak:





SEGURU AL GAUDE GURE MOMENTUAK SARE SOZIALETATIK BOTA NAHI DITUGULA?



Gaur egun, gure bizitzetako gauzarik garrantzitsuenetako bat da teknologia.

Geure buruari galdetuko bagenio, “nolako izango litzateke gure bizitza teknologiarik gabe?”, ez genuke erantzunik izango, beno edo erantzun bat izatekotan, “auskalo, ezta ideiarik ere”, edo horrelakoren bat izango litzateke.

Baina behar ditugun gauza denak ez dira onak. Eta teknologia ere bere alde onak baditu, baina dena ez da zuria, bere alde beltza ere badu eta. Gure egunerokotasunaren zati handi bat teknologiarik eskaintzen diogu, nahi eta nahi ez. Kanean zehar gabiltzala, iragarkiak, telebistak, eta abar aurki ditzakegu. Beraz, nahiz eta gure bizitzetan teknologiarik nahi ez izan, nola edo hala agertuko da.

Oraintxe esan dudana bezala, teknologia gauza on pila bat ditu, baina baditu bere alde txarrak ere. Hasteko, komunikatzeko bide azkar eta erraza da eta baita informatzeko ere. Baina ondo jakin behar da informazio hori hautatzen, dena ez baita egia.

Sare sozialek duten beste alde txar bat da, haiek erabiltzen denbora pasatzen dugun bitartean, guk egiten dugun dena gordetzen dela, hau da, sare sozialei gure informazioa ematen diegula: nolako gauzak gustatzen zaizki-

gun, non egon garen... Horrekin esan nahi dudana da gure pribatasuna arriskuan jartzen ari garela.

Alde onei dagokienez, teknologia eta sare sozialek bizitza errazten digute eta, hein batean, baita hobetu ere. Eguna igarotzea oso erraza da besteek igotzen dituzten gauzak ikusiz eta mezuak ere bidal daitezke. Musika entzun, arropak begiratu, baita erosi ere, eta horrelako mila gauza. Ospetsuen bizitza ikusi eta ia-ia dena jakiten duzu bi segundotan.

Alde txarrei erreparatuz, teknologia asko banatzen gaitu gure inguruko jendearengandik eta gauzei garrantzia kentzen die edo diegu, teknologia hori erabiltzen dutenak geu baikara. Momentu bat behar den bezala disfrutatu beharrean, mugikorrarekin ibiltzen gara filmatzen edota argazkiak ateratzen. Hemendik ondo geldituko al da? Agian filtro honekin hobeto? Eta beste alde hartatik ateratzen badut txuri-beltzean? Horrelako mila pentsamendu igarotzen dira gure buruetatik.

Hala ere, ez da hori txarrena. Bullying hitza seguru denok entzunda dugula. Bullying-a, zehazki, ikasle batek bere eskolan beste ikasleen eskutik jasaten duen jazarpen eta eraso-egoera jarraitua da. Badago antzeko hitz bat ere, ziberbullying-a. Hau oso ohikoa da egungo gizartean, baina ez da batere positiboa, bullying-a sare sozialen bidez egitean

datza eta.

Alde onetara itzuliz, sare sozialek jende berria ezagutzeko mila aukera irekitzen dizkigute, mundu osoko jendea ezagutzeko. Dena dela, denak bezala honek ere badu bere alde txarra. Sare sozialen bidez ez dugu hitz egiten ari garen pertsona ikusten. Beraz, ez dakigu hitz egiten ari zaigun pertsona hori berak esaten digun pertsona bera ote den. Gainera, gerora hainbat kasu gertatzen dira; hitz egiten duten bi pertsona horiek gelditzeko erabakia hartzea eta aurrez aurre elkar ezagutzen dutenean batak bestea uste zuten bezalakoa ez izatea, eta, jada muturreko egoera batean, bahiketarak ere gertatzen dira.

Azkenik, ikusi duzuen bezala, gaur egun sare sozialekiko izugarriko dependentzia dugu. Baina hori ona al da? Hainbat alde on ditu, baina baita txarrak ere. Erabilera ona emanez, lor dezakegu sare sozialek eta teknologia beren alde onak bakarrik ematea eta txarrak desagertzea. Beti planteatu beharko genuke ea sare sozialek une hori merezi duten edo beste momentu baterako gorde beharko genituzkeen eta benetan merezi duen une hori aprobetxatu eta disfrutatu. Beraz, gure buru horiek altxatu beharko genituzke mugikor horietatik eta momentu batean behintzat planteatu ea ze erabilpen eman nahi diegun.

Ione Aranberri

Erredakzioaren oharra:

Koronabirusaren ondorioz, etenda jarraitzen dute kultur, kirol eta, oro har, jende-pilaketak eragiten dituzten jarduerak, baita zerbitzu ugari ere. Aldizkari honen edizioa ixtean, oraindik ere ez genekien noiz arte mantenduko den egoera, baina Eusko Jaurlaritzak proposatu du "uda kulturala" ekainaren 1ean hastea gurean. Herriko agendan aurreikusitako zenbait ekimen jaso ditugu txoko honetan, baina baliteke horiek ere bertan behera utzi behar izatea datozen egunotan.

MAIATZAK 25, ASTELEHENA

-18:00. **Solasaldi gaztetxeroak** ("Debako Gaztetxea" Youtube kanalean). Gonbidatua: Gabirel Ezkurdia; "Israel eta sionismoa". Oraindik ere hurrengo hitzorduak zehaztu gabe dauden arren, solasaldiak hurrengo astelehenetan ere egingo dira ziurrenik.

Janari iraunkorra eta pixa-oihalak biltzeko kanpaina



-Caritas eta Udaleko Gizarte Zerbitzuek, Gurutze Gorriarekin elkarlanean, janari iraunkorra eta pixa-oihalak biltzeko kanpaina jarri dute abian. Elizan bilduko dituzte, San Antonioren kaperan (lehenengoa ezkerretara). Eliza irekita egongo da horretarako 9:30etatik 13:00etara goizez eta 18:15etik 19:45era arratsaldean. Bestalde, norbaitek diru-eskaintzaren bat egin nahi izanez gero, Debako Caritasek duen kontuan egin dezake: 2095 5034 63 1064044028.

KZgunea

-Egoitza itxita duen bitartean, KZguneak urrutiko laguntza zerbitzua eskaintzen jarraitzen du, telefonoz eta posta elektronikoz, zalantza teknologikoak argitzeko. Gainera, zuzeneko formakuntza eskaintzen ere hasi da orain, bideo-deien bidez, talde txikietan. Informazio gehiagorako, deitu 943 02 36 29 eta 945 016 100 telefono zenbakietara edo kontsultatu www.kzgunea.eus/eu/urrutiko-asistentzia eta <http://www.kzgunea.eus/eu/zuzeneko-formakuntza> atariak.

Aisialdi eskaintzak, bide ezberdinetatik

Itxialdia ahal den neurrian eramangarriagoa izan dadin, herriko hainbat eragilek euren eskaintzak moldatu edo berritu dituzte. Debako Udalaren facebook orrian aurki daitezke horietako zenbait, eta talde bakoitzaren sare sozialetan bestelakoak.

-**Zuhatza Kolore Anitz Aisialdi Taldeak** haurrentzako ekimen ezberdinak proposatzen ditu. Deialdiak sare sozialen bitartez egiten ditu -facebooken edota Youtube kanalean, esate baterako-.

-**Debako Gaztelekuak Ziber Gaztelekua** jarri du abian; ekintza ugari egiten ditu egunero (jokoak, zumba, sukaldaritza...), bere sare sozialak baliatuta.

-**Debako Kiroldegiko** kideek etxean egiteko ariketak proposatzen dituzte, bideo bidez (pilates, tonifikazio klaseak...).

-**Kulunka Dantza Taldeko** kideen ekimenez, etxean dantzan ateratako argazkiak sare sozialetara igotzen dituzte dantzariak.

"Deba" aldizkariako artikulua, online

-Kultur Elkartek "DEBA" aldizkariako ale zaharretako artikulua esanguratsuenak igotzen ditu astero bere web-artxibo berrira. Interesa izanez gero, ondoko loturan daude eskuragarri: <https://www.kulturdeba.org/openjournal>.

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **maiatzak 22, 23, 24.**
ekainak 1, 2, 3, 4, 19, 20, 21.

Burgoa Zuazo: **ekainak 5, 6, 7, 15, 16, 17, 18.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: maiatzak 23 eta 30 / ekainak 20 eta 27

BURGOA ZUAZO: ekainak 6 eta 13

9:30 - 13:00



Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

**ZURE ENTZUMENA
ZAINTZEN**



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 185/12

LIZ.-ZK.: 3

TaxiAlain Deba

WiFi

636 135 008
alain@taxideba.eus

www.taxideba.eus

MARIJE CASTRO IRIBARREN



MASAJISTA

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

28 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615

DEBA

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behe - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

A D

ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº 21/05/049
NIVEL 2

ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

G



JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzta

943 191 383

berriketan@zuhatzta.com



AUKERA

INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447

urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

ITXAS GAIN

Taberna

ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

LIGARZA

TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Argazkilaria

Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tf: 685 703 843



BEHIN zabaldu genuen euskara mundura
Sydney, Boise... ez zen ardura.

ATZO genion kanpokoari izua:
pobreziari, azalari,
geuk asmatutako gezurrei izua.

GAUR dugu ikara
gerturatzeko erditu gintuen amalurrarengana,
lurreratu gintuen amarengana.
Ikara, gure barne-loreak ernetzeko
haurrei behar duten gutxia onartzeko,
balkoietako soslaiek epaitzeko.

BIHAR baretzen badira, demagun,
amets itoek malkoka hazitako ozeanoak,
erortzen, Lesboseko euste-horma ustelak
eta sendatzen, protokoloen ahanzturan,
txorrota bakarra partekatzen dutenen zornea

ORDUAN baletozkigu etxera...
sari, gainera, euskara lukete aukera.

Eta jakin nahi nuke...
gaurko suminak irakatsi ala
larritasunak irabaziko digun aldiro,
epaile izaten ausartuko garen berriro.

Nagore Dorronsoro

muga denen gainetik...

Euskara

Zuhetza
euskara elkarfean *mmz* deba

